

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ziga.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ziga.

- 2106** *Abratsa, tranpa utsa.*
Ez beti; izan dire eta badire beti aberats prestuak.
- 2107** *Alako eztaietan, alako zopak.*
Bestaren antzekoak izaten ango solasak eta jostaketak eta; ez beti noski kana-ko eztaietan bezalakoak.
- 2108** *Al dugun bezala, ez nai dugun bezala.*
Askotan, nai dugun guzia ezin egin.
- 2109** *Alferra da, egun guziak besta.*
- 2110** *Alferrak nai du gan (joan) zerura, nekaturik gabe ordia.*
Baiñan zeruko atea apal ta mearra izaki, eta an sartzeko burua makurtu ta bortxa egin bear.
- 2111** *Aita-ama oberenak, bakoitzarenak.*
Norberaren gurasoak onenak.
- 2113** *Amar gizon onetatik, bederatzi amagatik.*
Zenbat balio duen amaren azierak!
- 2114** *Amarretan guatzian (oetan) ago: obeki lenago, geroago baño.*
Goiz etzaten dena goiz jaikitzeke ez da nagi.
- 2115** *Andre ona mee, gure etxeko meegi.*
Axekan txokolatiaz esaten da, meia ta urtsua denean.
- 2116** *Arbol erorien egurra aise egiten da.*
Ola beste leku askotan ere esaten da, eta beste izkuntzetan ere bai.
- 2117** *Axeriek buztana ezin altxa (gorde, izkutatu).*
Azari dela ezin estali, eta berdin ajeen bat duenak ere.
- 2118** *Arto opilla egin berrian guri.*
Alaxe ezkontza ta...
- 2119** *Artzen duena zordun da.*
Mesede bat artu duenak, esker ona bedere zor du. Oihenart-ek: "Hartzen duena zorduntzen da" (212).

- 2120 *Artu bai, ta eman ez: ezin diteke lege onez.*
- 2121 *Aunitz dakit, bizitzen badakit.*
Ongi bizitzen jakitea, ez da gutxi.
Oihenart-ek: "Aski dakik, bizitzen badakik" (547).
- 2122 *Aunitz nai duenak, guzia gal.*
Jaso dezaken baño geiago artzen duenak.
- 2123 *Aunitzek ez lan ta ez yan.*
Eta ori alferkeriaz.
- 2124 *Aurra amaina (amarena), arima Yangoikoarena.*
- 2125 *Balaki gazteak, baleza zarrak.*
Gazteak balaki zarrak dakiena, eta zarrak al balezake gazteak dezakena, biak ongi lirake.
- 2126 *Barrastan egiña, barrastan gana (joana).*
"Lan lasterra, lan alferra" dio Oihenart-ek ere (297).
- 2128 *Begia noraño, gogoa araño.*
Ikusteak gogoa sortzen; jateko, erosteko gogoa...
- 2129 *Bego beti zarra nausi.*
Orrela etxetan pakea obeki.
- 2130 *Bein txaketa xuriak yasan bear.*
Beltzak eta txuriak ikusi bear noizpait.
- 2131 *Belar artian dago sugia, ez bada izan ardura gabea.*
Gaizkillea ere izkutuan.
- 2132 *Berant bada, berant: udaberrian Bazko.*
- 2133 *Berenak bere, bai bertzerenak ere.*
Berekoia, dena beretzat nai.
- 2134 *Bertzeren eskutik ogia xur.*
Besteren eskutik jan bear duenak, jan laburra.
- 2135 *Beti majo nai duena, beti zirtzil.*
Asteko ederregia, jaietan autsia.
- 2136 *Bururik ez duenak, zangoak ibilli bear.*
Alakoak zenbat pausu alfer egin bear!

- 2137 *Denboraren denborako, gauza guziak bere garaiko.*
"Ta arto errea abenduko", zenbait erritan.
- 2138 *Dirua ez da segur lapurrak diren lekuan: eta ardiak otsoen artian.*
- 2139 *Egi bat aski saldunak, egun (ehun) ez sobera erostunak.*
Esaera au obeki dakar Oihenart-ek onela: "Begi bat ez aski du saltunak, ehun ez ditu sobera erostunak" (74). Erostunak erosi nai dituen gauzak ongi ikertu ta aztertu bear ditu aurretik, begi erneak bear ortarako.
- 2140 *Egin zazu lana, ta izain duzu yana.*
Ori esan bear zaio alferrari.
- 2141 *Egon Yangoikoarekin, eta Yangoikoa izain da zurekin.*
Gu Jainkoaren esanera bagaude, bera gurekin egongo da, ez du gugandik aldegingo. Oihenart-ek laburrago: "Ago Jainkoareki, Jainko dukek hireki".
- 2142-3 *Ederra ta ona, bi dituk.*
Eder guziak ez dire on, ez eta on guziak eder.
- 2144 *Elizatik urranena (urbillena), paradisutik urrunena (urrutiena).*
Gerta diteke ori, eta gertatu ere egiten da.
Oihenart-ek olatsu: "Elizaren hurranena, aldarearen urrunena" (131).
- 2145 *Erlijionia biotzetan da, ez belaunetan.*
Izpirituz eta egiaz adoratu bear da Jainkoa, ez gorputzeko itxuraz bakarrik; ori erakutsi digu gure Jaunak.
- 2146 *Erria yendearentzat, eta ez yendea erriarentzat.*
Orixe egia ederra: Erriak eta errietako agintariak jendearen onerako daude jarriak, ez jendea aien onerako.
- 2147 *Erria ttipiago, ta nasmenta aundiago.*
Maiz aski gertatzen ori, erri txikietan elkar ezin-eramanak, mingain-luzeak, naspillak...
- 2148 *Etxetik yoanak biziaren irabazteko.*
Zenbat olako orain ere!
- 2149 *Eskualerriko usaia (oitura): emaztea etxeko bolsero.*
Oitura orrek iraun baleza!
- 2150 *Ez dago alkaterik, ez erregerik, Yaunaren legea aldatu dezakenik.*
Errietako legegilleak egia ori gogoan baleukate, zein lege onak emango lituzketen!

- 2151 *Ez den lekutik ezin man (eman).*
Ezer-ezetik Jainkoak bakarrik atera dezake eta eman zernai.
- 2152 *Ez egin makurrik: ez duzu beldurrik.*
Alere zenbat jende, makurrik egin gabe, beldurretan bizi.
- 2153 *Ez duenak buru, zendako (zertako) anbertze liburu?*
Berdin ez du deus ikasiko.
- 2155 *Gizonak manatzeko ohorea: baño emazteak kiderra.*
Bolseroa izaki!
- 2156 *Gizonak dio: Hula! Yangoikoak aldiz: Hala.*
Behereko Nafarroatik etorria dela ezagun du esaera onek.
- 2157 *Gogozko tokian mald(ar)ik ez.*
Atsegin ditugun gauzetan, nekerik ez arkitzen.
- 2158 *Goseak ez du pensamentu onik.*
Jesus-i ere, goseak zegolarik egin zion deabruak lenbiziko tentazioa: "Arri oiek ogi biur itzatzu".
- 2159 *Gu beartzen bagara, itsasoko urak akituko dira.*
Gure bear-orduan iñor ez izango guri laguntzeko. (Azpilkuetan, eta berdintsu beste lekutan ere).
- 2160 *Gure urtiak guateko (joateko) etorri dira, ez gurekin egoteko.*
Urteak badoaz, eta zein lasterka!
- 2161 *Yangoikoa bat, eta bera naikoa.*
Beti izan da ta beti izango, zenbait jendek ukatzen badute ere.
- 2162 *Yainkoa luzakor, ez atzenkor.*
Oihenart-ek: "Jainkoa, luzakor bad'ere, ez da ahazkor"; luzatzen du, ez du presarik, bañan ez atzentzen (aztutzen).
- 2163 *Ikasi du zarrak erakutsi-ta bearrak.*
Zarra urte luzetan ikasle izaki, asko ikusi ta ikasi.
- 2164 *Ikazkiñarekin beltz, errotazaiñarekin xuri.*
Nor norekin dabillen, eta bera ere alako.
- 2165 *Yokua izan amairu, ezin galdu amalau.*
- 2166 *Yorra bat, arbi bat; yorra bi, arbi bide (arbi bi).*

Lan arretatsuak gauzak ontzen eta ugaritzen.

- 2167** *Iru bekatu itsusi: Pobre orgullosoa. Aberatsa gezurtia. Zarra amorosua.*
Berdintsu dago Liburu santuan (cfr Sir 25,4).
- 2168** *Iru xito izan eta lau galdu. Nere xituen ama nork yan du?*
Kanta ezaguna da.
- 2169** *Itzak ederrago egiñak baño.*
San Juan apostoluak esan digu: "Maita dezagun Jainkoa ez itzez ta mingañez, baiñan egiñez eta egiaz" (1 Io 3, 18).
- 2171** *Lanekin ageri da gizona.*
Lan onak bai eta ez itz ederrak egiten gizona.
- 2172** *Mendiak mendiaren bearrrik ez, gizonak gizonaren bai.*
Elkar lagundu bear dugu, iñork ez dezake esan: Ez dut iñoren bearrrik.
- 2173** *Nai baduzu ongi bizi, zartzen gazterik bear duzu ikasi.*
Zarren zuhurtzia eta umotasuna gaztetandik ikasi.
- 2174** *Naikoa izaki, eta alare nigarrez.*
Geiago izan naiez; zenbat olako, zoritxarrez.
- 2175** *Nolako sakia, alako errefera.*
Pillota jokutik artua; itz min batek itz min asko sortarazten, itz miñari itz miñez erantzuten.
- 2176** *Norbaitek bear galdu, bertziak irabazteko.*
Jokuan bai, lanean ez.
- 2177** *Norat aize, arat aise.*
Aize-alde aisago ibiltzen; jende askok aise-aldera, erraz bizitzera jotzen.
- 2178** *Obe da berant, iñoiz baño.*
Berdin erderaz: Más vale tarde que nunca. Oihenart-ek: "Hobe da berant, ezi ez iagoiti" (624).
- 2179** *Obeki da sobera, gutiegi baño.*
Gauza onetan bai, txarretan ez.
- 2180** *Okerra obe itsua baño.*
Okerra badu begi bat bedere, itsuak bat ere ez. Oihenart-ek: "Itsu bano hobe da oker izatea" (289).
- 2181** *Ondasun aundiak baño izen ona obe.*

Olatsu Liburu santuan (cfr Prov 15, 30).

- 2182** *Ondu gabez, fruitu guziak kirats.*
Buruzpide askotan, gaztegi astea kaltegarri.
- 2183** *Ongi iteko (egiteko) ez da sekulan berantegi.*
Ongi egiteko beti mugona.
- 2184** *Ongi begiratua da Yainkoak begiratzeko duena.*
Begiratu = zaindu, kontu izan.
- 2185** *Orain oraingo, gero geroko.*
Egiteko guziak zein beren tenorean.
- 2186** *Osasuna zer den ez dakigu, galdua ikusi arte.*
Orduan oartzen gera zein ondasun aundia den osasuna.
- 2187** *Puntu ta puntu, petatxurik ez; zer ote da?*
Galtzerdia.
- 2188** *Saltsa nasiago, urrunago.*
Beste batzuk: "Saltsa nahasiago, usaina handiago".
- 2189** *Sekulan baño noizbait obe.*
"Obe da berant, iñoiz baño".
Oihenart-ek: "Hobe da berant ezi ez iagoiti" (624).
- 2190** *Seme zintzoa, aitaren atsegiña: seme biurria, amaren atsekabea (cfr Pro 10, 1).*
- 2191** *Sobera baño obe aski.*
Geiegia baño obe naikoa; geiegia beti kalte.
- 2192** *Xarrari esker guti.*
Askotan bai; Jaunak esan du alere: "Gizona ez dezazula gutietsi bere zartzaroan" (Sir 8, 7).
- 2193** *Xilo berriak ez du zaharra tapatzen.*
Zor eta pekatu berriak ere ez len egiñikakoak.
- 2194** *Ukondoa urbil, eta ari musu ezin man (eman).*
Zein gutxi dezakegun!
- 2195** *Unek irri, arek nigar: munduko bizitzea.*
- 2196** *Ur aundietan arrain aundiak.*

Uri aundietan jende asko: aundi ta txiki, on eta gaizto.

- 2197** *Urtiak agoa (aoa) luze du.*
Urte-bidean asko eskatzen bizitzeko.
- 2198** *Urtian bein Bazkoa.*
Alegia egiazko Bazkoa, garizumakoa.
- 2199** *Zahar itz, zuhur itz.*
Oihenart-ek: "Zahar-hitzak, zuhur-hitzak" (n. 420).
- 2200** *Zarrak dauka beti zer erran: gaztiak zer ikasi.*
- 2201** *Zartasuna baliosa da, gaztetasuneko falten erremediatzeko.*
- 2202** *Zartasuna, egiazko eritasuna.*
- 2203** *Zoroak egin, eroak egin, egiña egin.*
Nork-ere egin duen, egiña egiñik dago.
- 2204** *Zu aundi ta ni txiki: egia ori gero ikusi.*
Gizona ez da beti dirudiena, are gutxiago berari iduri zaiona.